



# TOKIKO ENPRESA PROIEKTU ETA ERAKUNDEETAN PRESTAKUNTZA DUTEN GAZTEEN KONTRATAZIOA BULTZATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA. DONOSTIAKO EKONOMIA SUSPERTZEKO PLANA (PREK)

## ATARIKOA

Donostia Sustapena S.A., Donostiako Udaleko garapen ekonomikorako sozietatea da. Bere helburua **iraunkortasun eta berrikuntzaren irizpideen arabera, tokiko ehundura ekonomikoa babesten duten politika eta esku-hartzeak sustatzea da, haien lehiakortasuna mantendu eta hobetze aldera**, gero eta polarizatuago eta globalagoa den merkatu baten aurrean, enpresa egitura lehiakor iraunkorra ahalbidetuz eta kalitateko enplegua sortuz.

2011az geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak urtez urteko planak garatu dituzte hiriari bultzada ekonomikoa emateko. Plan horietan, berezko analisi eta estrategia batzuetatik abiatuz, enpleguarekin lotutako programak nahiz tokiko ekonomia bultza zitzaketan bestelako jardura estrategiko batzuk uztartzen ziren.

Lehendabiziko 4 urtetan, Planak hiru ildo zituen esku-hartze bati erantzun zion: ekintzailetzari babesa, laneratzea eta enpresa lehiakortasunerako babesa, lurraldearen (auzoak eta industrialdeak), sektore ekonomikoen eta pertsonen kolektiboen arabera neurriekin eta esku-hartze programa espezifikoekin. 2015etik aurrera, berreskurapenaren testuinguru batean eta printzipio nagusiak mantenduz, planak faktore hauetan erreparatzen du: giza kapitala, enpresa lehiakortasuna eta lurralde kohesioa.

Aurten, krisi-egoeran gaude Covid-19aren eraginez. Krisiak ondorio ekonomiko eta sozialak dakartza, suspertze ekonomiko zailekoak, eta eragin handia du gure hirian langabezian (10.000 pertsona inguru), eta, bereziki, kualifikazioa duten gazteak lan-merkatuan sartzea zaila da. Adinagatiko langabeziaren segmentuari dagokionez, 35 urtetik beherako gazteak hiriko langabetu guztien **%42** dira, eta horrek argi eta garbi erakusten du egoera horri aurre egiteko laguntza-neurriak aplikatzeko indize altua dagoela.

Hori dela eta, **Donostia Sustapenaren Ekonomia Suspertzeko Planaren (PREK)** bidez, erronka horiei erantzuteko ahalegina egin nahi da hiria **BERRIKUNTZAREN, TALENTUAREN** eta SMART erako hiri baten garapenaren inguruan integratu eta modu argian kokatzeko ildo eta programetan sakontzea ahalbidetzeko neurriak artikulatuz.



Europar Batasuna  
Europako Gizarte Funtza  
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea  
Fondo Social Europeo  
El FSE invierte en tu futuro

Ibilbide horretan guztian zehar, lankidetzak publiko eta pribatua elementu gakoa da, zalantzarik gabe. Elementu horren bidez kalitateko kontratazioak babesteko proiektu eta programak eta, alde batetik, lehendabiziko lan aukera sortzearekin eta, beste alde batetik, eskuratutako prestakuntza akademikoan esperientzia metatzearekin lotutako laneratzeko ibilbideak indartu eta horien aldeko apustua areagotu nahi dugu, proiektu berritzaileak garatuz, enpresen eta merkatuaren eskaerak hiriko profilekin elkarlotuz.

Zehazki, “Investiga” eta “Talento Innovador” laguntzak arautzen dituzten oinarri hauek artikulatzen dira. Laguntza horiek **hiriko gazteen garapen profesionala, formakuntza eta esperientzia sustatzen dute**, tokiko jarduera ekonomikoa bultzatzen duten enpresek eta erakundeek kontratatze aukerak sortuz, eta etorkizunean ezagutzarekin eta berrikuntzarekin lotutako proiektuen bidez jarraitzeko aukera emanez.



## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA. XEDEA

Donostian erroldatuta eta langabezia diren kualifikaturiko gazteen (35 urtetik beherakoak) kontratazioa eta Donostiako enpresa ehunduran sartzea akuilatzea.

Horretarako, bi laguntza mota jarri dira abian.

1. “Investiga” laguntzak (1. kapitulua), ezagutzen oinarritutako jarduera garatzen duten tokiko enpresa eta entitate berritzaileetan gazteen lehen lan-esperientzia sustatzeko.
2. “Talento Innovador” laguntzak (2. Kapitulua), gazteak enpresa-proiektu berritzaile edota ezagutzen oinarritutako jarduerak garatzeko lantaldeetan kontratatu daitezzen.

### 2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak 300.000 euro bideratuko ditu programa horretara.

Funtsak horrela banatuko dira:

- 50.000 euro Investiga laguntzetarako (1. kapitulua)
- 250.000 euro Talento Innovador laguntzetarako (2. kapitulua)

Zenbateko horiek aldatu egin daitezke Donostia Sustapenak horrela erabakiz gero.

### 3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Laguntzaren pertsona onuradun modura hartuko da laguntza ematea ekarri zuen jarduera egin behar duen hura, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona, betiere, Oinarri hauetan jasotzen diren betekizunak betetzen baditu eta, espezifikoki, laguntza mota bakoitzarekin lotutakoak.

Pertsona onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, nazional edota atzerrikoak, eta baita aurrekoen izaerarik gabeko elkarteak ere, Oinarri hauetan ezarritako betekizunak jasotzen dituen ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratu baldin badira. Kanpoan geratzen dira ondarezko sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan zehazten direnak.



Oinarri hauetan dagozkion laguntzak eskatzeko beharrezkoak diren betekizunak eta horiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira. Edozein kasutan, Diru-laguntzen Lege Orokorreko (DLLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz.

Ezingo zaie laguntza pertsona fisiko edo juridikoei eman:

- Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmoz diru-laguntzak edota laguntzak eskuratzeko aukeraren galerarekin zigortuta baldin badaude, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat baldin badute, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko seigarren azken xedapenean xedatutakoaren arabera sexuaren ondoriozko diskriminazioagatik zigortutakoak barne.
- Donostiako Udalarekin edota Donostia Sustapenarekin zorrak baldin badituzte.
- Aldez aurretik emandako laguntzak, osorik edo zati batean, itzultzeke badituzte, itzultzeko zenbatekoa ordaindu izana egiaztatzen ez den bitartean.

#### 4. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BETEKIZUNAK

Hauk dira deialdian parte hartzeko onuradun diren pertsonak betetzeko betekizunak:

- a) Helbide fiskala eta lanlekua Donostian izatea. Kontratatzeko pertsonaren lanlekua Donostian kokatuta egon beharko da. Modu ezohikoan beste helbide fiskal bat onartu ahalko da, betiere, Donostian lanleku bat izanez gero, kontratatutako pertsonak hartuko dituen. Hori aldez aurretik justifikatu beharko da eta Donostia Sustapenak eman beharko du onspena.
- b) Laguntza horien onuradun den pertsona irabazizko jarduera ekonomiko bat garatzen duen pertsona fisiko bat izatea edo pertsona juridikoa izatea.
- c) "Talento Innovador" laguntzen kasuan (2. kapitulua), gainera, proiektu berritzaileak izan beharko dira, I+G+b erakoak eta enpresarako gakoak diren jardun berritzaileak garatzekoak.
- d) Ezingo dira pertsona onuradun izan irabazi asmorik gabeko Fundazio eta Elkartekak.

Modu espezifikoan, ordea, onuradun izan ahalko dira ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuz



araututako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide diren erakundeak, betiere, dagokion laguntzaren xede den kontratazioaren pertsonaren lanlekua Donostian kokatuta badago.

- e) Ezingo dira pertsona onuradun izan 25% baino gehiagoan Sektore Publikokoak diren erakundeen (halakotzat ulertuta, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak lekualdatzeko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 3. artikuluan barneratzen diren erakundeak) irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondarezko sozietateen edota Elkargo Profesionalen mendeko edo horiek partaidetutako erakundeak.

Zehazki, ordea, onuradun izan ahalko dira, atal honetan adierazten den betekizuna betetzen ez duten pertsona juridikoak, betiere, ez betetzearen arrazoia ZTBES sareko kide den erakunde baten mendeko edo partaidetua izatea bada.

## 5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diruz laguntzeko kontzeptuak eta laguntzen zenbatekoa laguntza mota bakoitzari dagozkion kapituluetan jasotzen dira.

## 6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERA EMATEA.

Laguntza hauen emakida ez da bateragarria izango xede eta epe berdinerako emandako beste batzuekin, horiek edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik, nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko organismoetatik iristen direla ere. Edozein kasutan, indarreko legeriaren arabera Gizarte Segurantzaren kuotetan egokitu ahal diren onura edo murrizketekin bateragarri izango lirarteke.

Oinarri hauetan ezartzen diren laguntzek 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 zenbakidun Erregelamenduan (EB), minimis izeneko laguntzei dagokienez Europar Batasunaren Funtzionamendurako Tratatuak 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoan, 2013ko abenduaren 24ko EBAO aldizkarian argitaratua, ezarritako “minimis” izeneko arauak beteko dituzte.

## 7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA.



Eskaerak aurkezteko epea **oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen eta epea laguntza mota bakoitzera bideratutako baliabide ekonomikoak xahutu arte** (kasu horretan Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko da) luzatuko da, **edo, bestela, 2020ko urriaren 30era arte.**

Behin eskaerak egiteko epea amaituta, soberakinik baldin badago edo zuzkidura ekonomikoa areagotzen bada, eta Donostia Sustapenak egokitzat jotzen baldin badu, eskaerak egiteko epea luza dezake oinarri hauek aldatuta (kasu horretan dagozkion bideetan argitaratuko da).

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu ahalko dira Donostia Sustapenaren webgunean ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Bitarteko horiek erabiltzea ezinezkoa baldin bada, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko da eta hark izapidetzeko modua zehaztu ahalko du.

Eranskinak osorik bete beharko dira eta behar bezala sinatuta egon beharko dira.

Edozein informazio edo kontsultarako 943.482800 telefono-zenbakian edo [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbide elektronikoan artatuko da, azken horretan zera adierazi beharko da: “Investiga/gazteen kontrataziorako laguntzak” edo “Talento Innovador/gazteen kontrataziorako laguntzak”.

Jendaurreko arreta ordutegia Donostia Sustapeneko webgunean adierazitakoa izango da.

Donostia Sustapenak eskaerak aurkeztu aurretiko arreta zerbitzu bat eskaintzen du, balizko zalantzak argitzeko. Zerbitzu hori posta elektronikoz eskatu beharko da aipatutako helbide elektronikoan eta zerbitzua saio indibidualetan edo taldeka egin ahalko da, Donostia Sustapenak erabakitzen duen eran eta proiektu edo laguntzen tipologiaren arabera.

Eskaera egiteko dagokion inprimakiarekin batera, eskatzen den administrazio dokumentazio guztia atxikiko da, eta baita dokumentazio tekniko eta ekonomikoa ere.

#### **Administrazio dokumentazioa:**

- a) Eskaera orria (“Eskaera” eranskina).
- b) Laguntza eskatzen duen pertsona edo erakundearen “bankuko datuen eranskina”, dagokion banku erakundeak zigilatuta, edo banku agiri baliokidea, banku erakundeak behar bezala zigilatuta.
- c) Pertsona fisikoaren kasuan, eskatzailearen NAN agiriaren kopia.



- d) Pertsona juridikoaren kasuan, eskatzailearen IFK zenbakiaren kopia eta, hala badagokio, pertsona ahalordearen NAN agiria.
- e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea egiaztatzeko dokumentazioa.
- f) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) kide izanez gero, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko Sailburuordearen ebazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartuta dagoen Eragile Zientifiko eta Teknologiko modura egiaztatu eta aitortzekoa.

Onuradun den pertsonak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa hartzen du beregain.

Pertsona interesdunek aldeztatik 2018., 2019. edo 2020. urteko deialdiko laguntzaren bat eskatu badute Donostia Sustapenaren aurrean, atal honetan eskatzen den dokumentazioa ez da berriro aurkeztu beharko, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta bertako datuak aldatu ez badira.

Donostia Sustapenak zerga-betebeharrak betetzearen (Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Udal Diru-bilketan) inguruko egiaztapenak eskuratuko ditu zuzenean, ziurtagiri telematikoen bidez. Era berean, ekonomia jardueren gaineko zergaren historia (altak, bajak, aldaketak, jardueraren epigrafeak) eskuratuko du, Gipuzkoako Foru Ogasunak igorrita.

Enpresa eskatzaileak edota pertsona sustatzaile bakoitzak Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzearen aurka ager daiteke berariaz. Kasu horretan dagozkion ziurtagiriak helarazi beharko dira.

Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo zergapetzen dutenek dagozkien Ogasunen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte beti.

Diru-laguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeke dituzten erakundeek hori beteko dutela egiaztatu beharko dute laguntzaren ordainketa egin ahal izateko.

Enpresa eskatzailea edota pertsona sustatzaile bakoitza Sustapenak ziurtagiri tematikoak eskatzearen aurka agertu badira berariaz edo Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo zergapetzen badute, era berean, honakoak helarazi beharko dituzte:

- Laguntza eskatu duen enpresaren zerga-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa.
- Jarduera ekonomikoaren eta historikoaren dokumentu eguneratua, laguntza eskatu duen enpresarena, Gipuzkoako Foru Aldundiak igorria.



Europar Batasuna  
Europako Gizarte Funtza  
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea  
Fondo Social Europeo  
El FSE invierte en tu futuro

- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzea.

**Dokumentazio teknikoa:** laguntza mota bakoitzari dagozkien kapituluetan jasotzen den moduan (20. artikulua Investiga laguntzetarako, eta 26. artikulua Talento Innovador laguntzetarako)

## 8. ARTIKULUA ESKATZAILEEN AKATSAK KONPONTZEA.

Donostia Sustapenak dokumentazio osoa berrikusi ostean hura osagabe dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten bada, pertsona eskatzaileari (posta elektronikoz) eskaera egingo zaio akatsa konpon dezan edo beharrezkoak diren dokumentuak gainera ditzan hamar egun balioduneko epean, hala egin ezean, bestelako izapiderik gabe, eskaera horretatik baztertua izango dela eta horren ondoriozko ebazpena emango dela adierazita. Administrazio dokumentazioa nahiz laguntza mota bakoitzeko dokumentazio espezifikoa konpontzeko aukera izango da. Donostia Sustapenak proiektuko memoriari buruzko argibideak eskatu halako ditu, komenigarritzat jotzen badu.

Akatsa zuzentzeko eskatutako dokumentazioa hasierako eskaera egiteko baliatutako bide bera erabiliz aurkeztuko da (modu telematikoa edo modu presentziakoa). Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko.

Laguntzak Donostia Sustapenak emandako berriarazko ebazpen bidez eman edo ukatuko dira eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

## 9. ARTIKULUA. LAGUNTZEN IZAPIDEA ETA EBAZPENA

Eskaerak sarrera-erregistroko hurrenkeraren arabera ebaluatu eta ebatziko dira laguntza mota bakoitzera bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskaerak laguntza mota bakoitzari dagozkion kapituluetan jasotzen den moduan balioetsiko dira.

Eskatutako laguntzaren ebazpena igortzeko epea bi hilabetekoa izango da eskaera erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan ez dira kontuan izango administrazio dokumentazioko akatsak konpontzeko epeak. Laguntza ematearen ebazpena hitzartutako epean ez igortzeak ez du suposatuko haren emakida.





Eskaera ebazten den unean, Donostia Sustapenak aurkeztutako derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskatu gabe aurkeztu den beste edozein dokumentazio ez da zertan berrikusi beharko laguntzaren inguruko ebazpena emateko.

Laguntza Donostia Sustapenak emandako berriazko ebazpen bidez eman edo ukatuko da eta posta elektronikoz jakinaraziko da.

Ebazpenak pertsona eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta pertsona onuradunen zerrendak argitaratu egingo dira. Bestalde, hala Talento Innovador laguntzen kasuan nola Investiga laguntzen kasuan, pertsona onuradunen zerrenda 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamenduko (EB) 115. artikuluko 2. atalean jasotzen den zerrenda publikora gaineratuko da.

Deialdi honi dagozkion jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira eskaeran adierazitako helbide elektronikoa baliatuz.

Igorritako ebazpenarekin desadostasunak izanez gero, alegazioak aurkezteko aukera izango da, beranduenez, ebazpena ematen denetik hilabete batera, eta Donostia Sustapenaren erabakiaren zain egon beharko da, hala badagokio, bi aldeak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren baitan geratuko direlarik. Horretarako, Donostia Sustapenarekin jarri beharko da harremanetan eta hark emango du izapidetzea egiteko jarraitu beharreko prozeduren berri.

## 10. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagun daitezkeen gastu modura onartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak zalantzarik gabe, Oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira.

Diruz lagun daitezkeen gastuetan, berriaz hari helduz, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 31. artikulua izango da aplikagarri.

Diruz lagun daitezkeen gastuen justifikazioa eta laguntzen ordainketa egiteko modua laguntza mota bakoitzari dagozkion kapituluetan jasotzen dira. Edozein kasutan, laguntza mota bakoitza justifikatzeko ezarritako epea igarota (1. eta 2. kapituluak) dagokion dokumentazioa aurkeztu ez baldin bada, Donostia Sustapenak aukera izango du pertsona onuradunari dokumentazio hori, beranduenez, jakinarazpen hori egin eta 15 egun naturaletan aurkez dezala eskatzeko. Epe berri hori igarota dagokion dokumentazioa aurkeztu ez baldin bada, laguntza ezetsizat joko da eta, horrenbestez, kobratzeko eskubidea galdu egingo da edo, hala badagokio, dagoeneko jasotako zatia itzuli egin



beharko da.

Onartutako justifikazioa dagoeneko egin diren ordainketak baino txikiagoa baldin bada, dagokion zatia itzultzeko eskatuko da.

## 11. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Laguntza horien onuradun diren pertsonak Diru-laguntzen Lege Orokorreko 14. artikuluan jasotzen diren betebeharrak hartuko dituzte beregain, ondorio hauetarako aplikagarritzat jotzen dena berariaz, betebeharrak hauek aipatzen (zerrenda modura eta ez mugatzaile modura) direlarik:

- a) Ekarpena diruz lagundutako jarduerak burutzera bideratzea.
- b) Aurkeztutako proiektu eta lanketen baldintzak errespetatu eta betetzea, eta kontratatutako pertsonak proiektu eta lanketa horiekin lotura izatea, Donostia Sustapenak berariaz bestelakorik baimendu ezean.
- c) Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa ezarritako moduan eta denboran aurkeztea.
- d) Jasotako laguntzak aplikatzea justifikatzeko dokumentuak gordetzea, egiaztatu edota ikuskatu daitezkeen bitartean eta, edozein kasutan, aplikagarri den araudian ezartzen den epean zehar.
- e) Proiektuak dituen jardueren gastu edo diru-sarrerak osorik zenbatzea.
- f) Kontabilitateko liburuak behar bezala osatzea, horretarako betebeharrak dagoenean.
- g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- h) Laguntzak emateko kontuan izan den edozein inguruabar, subjektibo nahiz objektibo, aldatu bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- i) Emandako laguntzekiko dituen zereginak betetzeko Donostia Sustapenak eskatzen duen informazio oro helaraztea.
- j) Donostia Sustapena eta Europako Gizarte Funtsa aipatzea laguntza honen finantzatzaile modura (14. artikulua araberak), laguntza hauen xede diren proiektuak sustatu eta hedatzeko jardunetan, horien irudi instituzionala gaineratuz, eta baita horrekin lotutako idazkuna ere, komunikaziorako egiten diren euskarrietan (web-orrialdea, kartelak, posta elektronikoak, etab.).
- k) Kontratutako pertsonari diruz laguntzeko kontratazioa Europako Gizarte Funtsak Euskadi 2014-2020 Programa Eragilearen esparruan ere finantzatzen duela adieraztea eta kontratatutako pertsonaren gainean eskatutako datuak jasotzean lankidetzara ematea.
- l) Donostia Sustapenak laguntza hauen jarraipena egiteko deitzen dituen bilkura guztietara bertaratzea.
- m) Jasotako laguntzarekin lotuta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).



- n) Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin kolaboratzea finantzaren kontrol eta egiaztapenerako burutu ditzakeen esku-hartzeetan, haren eskura eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia ipiniz.
- o) Laguntzaren xede den jarduera egiteko beharrezkoak liratekeen lizentzia edo baimen guztiak izatea.
- p) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako betekizunak betetzea, eta baita laguntza mota bakoitzean zehaztutakoak ere.
- q) Donostia Sustapenari helburu berarekin jasotako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen berri ematea.
- r) Donostia Sustapena baimena ematea, I+G+b enpresa eta agenteen direktorio digitaletan, harremanetarako datuak, jarduerari dagozkion datuak, izen komertziala, logotipoa, marka eta pertsona onuradunak trafiko ekonomikoan erabilitako beste edozein ikur argitara dezan. Horretarako, pertsona onuradunak Donostia Sustapenari elementu horien gainean ustiapenerako lizentzia bat emango dio, adierazitako helburuetara mugatua, eta hark modu baketsuak erabiliko duela bermatuko da.
- s) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikaziorako euskarrietan (webguneak, rrs, posta elektronikoak, megafonia, etab.) sustapen eta hedapenerako materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldien hizkuntza erabiltzean, etab.

Pertsona onuradunek aukera izango dute Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari aholkularitza eskatzeko testuen itzulpenak egin eta horiek zuzentzeko (gehienez hilean 1.000 karaktereko itzulpenak, eta zuzenketen kasuan gehienez 9.000 karaktere), betiere, zerbitzuaren betekizun eta ezaugarriak betetzen badira.  
([Http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es](http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es))

## 12. ARTIKULUA. ITZULKETA.

Pertsona onuradunak jaso duen ekarpena itzuli egin beharko du, diruaren interes legala gaineratuta (emandako kopuruen ordainketa egin den unetik aurrera), egoera hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusten diren betebeharrak modu larri eta errepikatuan urratzea.
- Ekarpenaren helburua Oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra urratzea, edota behar bezala ez justifikatzea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen egiaztapen eta ikuskapen esku-hartzeen aurrean uzkur, aitzakiaz, buxaduraz edo ezkor agertzea, eta baita kontularitzako, erregistrozko edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak ez betetzea horren ondorioz emandako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren



errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu berdinekin edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen, nazionalen, Europar Batasuneko edota nazioarteko erakundeen aldetik jaso ahal izan diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak egiaztatzea ezinezkoa denean.

- Jarduerak neurritz gaineko finantzazioa jaso izana, xahutu ez den edo neurritz gain finantzatu den zenbatekoan.
- Kontratua etetea objektibotzat jotzen ez diren edo enplegataileari ez dagozkion arrazoien ondorioz.

Ekarpena itzuli beharko da, Donostia Sustapenaren aldetik eta onuradunari igorrita, jarraian deskribatzen diren baldintzekin, Oinarri hauetan ezarritako arrazoietakoren bat gertatzea adierazita.

Itzulketa laurogeita hamar (90 ) egun naturalen barruan egin beharko da, Donostia Sustapenak onuradunari artikuluko honetan itzulketa egiteko aurreikusten diren arrazoietakoren bat gertatu dela adierazteko jakinarazpena burofax bidez igortzen dionetik.

Aurrez itzulketa egiteko adierazitako arrazoietakoren bat gertatzen baldin bada, era berean, onuradunak, hala badagokio, ordaintzeke lituzkeen kopuruak kobratzeko eskubidea galdu egingo luke”.

### 13. ARTIKULUA. ELKARREN ARTEKO FINANTZAKETA

Oinarri hauetan aurreikusten diren kontrataziorako laguntzak Europako Gizarte Funtsak finantzatu dituzten % 50ean Europako Gizarte Funtsaren Euskadi 2014-2020 Programa Eragilearen esparruan, "Donostia GazteEkin: langabe gazte kualifikatuak hiriko sektore emergenteetan eta estrategikoetan lan-merkatuan sartzea" izeneko programarako.

### 14. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA.

Datuak babesteko indarreko araudian xedatutakoarekin bat etorriz, Oinarri hauetan arautzen diren laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie dagokion eskaeraren bidez ematen dituzten datu pertsonalak, nahiz helarazten duten edozein dokumentazio, laguntzak izapidetzean edota haiek onartu ondoren haiek kudeatzen diren bitartean, Donostiako Udalak tratatzeko gaineratuko direla, Tratamenduaren Erantzule izango dena, eta Donostia Sustapenak kudeatuko ditu datu horiek, tratamenduaren arduradun modura jardungo duena. Tratamenduaren helburua eskaera kudeatu eta aipatu laguntzak izapidetzea izango da.



Tratamendurako zilegitasunaren oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduko (EB) 6.1.e) artikulua da, datu pertsonak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari (DBEO) dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa: tratamendua ezinbestekoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak gauzatzean burututako misioa betetze aldera: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa eta 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskaera egiteko dagozkion inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruzko informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta horiek ez emateak edo datu okerrak emateak eskaera kudeatu ahal izatea ekidingo du.

Datuak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen balizko erantzukizunak erabakitzeke eta datuak tratatu ahal izateko behar den denboraz.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun diren pertsonak emandako datu pertsonalak erakunde nazionaleri edo, hala badagokio, laguntza horien finantzaketan parte hartzen duten edota horien kudeaketan Donostia Sustapenarekin kolaboratzen duten nazioz gaindiko erakundeei laga ahalko zaizkie, hori beharrezkoa denean eta soilik emakida kudeatzeko xedez.

Halaber, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazioko datuak komunikatu edo lagatzea, horiek emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera Donostia Sustapenaren web-orrialdean nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Azken kasu horretan, soilik emandako laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean edo, zenbatekoa edozein izanik ere, hori eskagarri denean.

Eragindako pertsonak datuak hartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, eta baita datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako eskubideak ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuaren aurrean, Ijentea kalean (20003, Donostia).

Eskubideak erabiltzean behar bezala artatuak izan ez bada, erreklamazio bat ipini ahalko da Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean. Helbidea: Beato Tomas de Zumarraga kaleko 71. zenbakia, 3. solairua (01008, Gasteiz). Haatik, lehenik eta behin, aukera izango da Donostiako Datuen Babeserako Delegatuaren aurrean erreklamazioa aurkezteko: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).



Ondorio horietarako, adierazten da dagokion eskaera aurkeztuz eskatzaileak baimena ematen duela berariaz aurreko leerroaldetan adierazitakoaren ondoriozko datuak komunikatu edo lagatzeko.

## 15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA.

### Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez iragarriko dira eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesdunek eskaera aurkezten dutenean bertako Oinarriak osorik onartzen dituzte.

### Erantzukizunetik salbuestea.

Pertsona onuraduna izango da laguntzen den jarduera egitearen ondorioz, edo aurretik edo ondorengo esku-hartzeen ondorioz sortzen diren kalte pertsonal edota material guztien gaineko erantzule bakarra, Donostia Sustapena kontzeptu horien ondoriozko edozein erantzukizunetik salbuetsita geratuz.

## 16. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Ematen diren laguntzak Oinarri hauetan jasotzen diren araei jarraiki arautuko dira eta, horien ordez, Diru Laguntzen Lege Orokorrean jasotzen diren araei eta hura garatzeko Erregelamenduari jarraiki, Diru Laguntzen Lege Orokorrearen Erregelamendua (aurrerantzean DLLOE) onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartua. Haatik, Diru Laguntzen Lege Orokor horretarako edukiak kudeatzeko printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazioei buruzkoei dagokienez eskusiboki, hori guztiori bertako 3.2. artikuluko bigarren leerroaldearekin bat etorritz, aplikazio hori zehazten duena.

Bestelakoan, DLLO eta DLLOE horiek soilik aplikagarri izango dira Oinarri hauetan legezko testu horien gaineko aipu berariazkoak egiten direnean.

Donostian, 2020ko uztailaren 27an

Eneko Goia

Donostia Sustapena, S.A.-ko presidentea



## 1. KAPITULUA. INVESTIGA

### 17. ARTIKULUA. INVESTIGA LAGUNTZEN XEDEA

Goi mailako prestakuntza akademikoa duten, Donostian erroldatuta dauden eta langabezia dauden 35 urtetik beherakoak (kontratazioaren egunez) ezagutzan oinarritutako jarduerak garatzen dituzten tokiko erakundeetara gaineratzea, modu horretan, gazte horien prestakuntza, esperientzia eta garapen profesionalerako laguntza eman dezaten.

Helburua laguntza hauen bidez laneratzen diren pertsona gazteei laneko lehendabiziko esperientzia ematea bultzatzea da. Kontuan izango dira, honako baldintzak betetzen dituzten kontratazioak:

- Amaitutako bere prestakuntza akademikoarekin lotura duen laneko lehen kontratazioa izatea
- Arlo horretan esperientzia izanez gero, 12 hilabetetik beherakoa izatea

Haatik, kontratatzen diren pertsonak laneko esperientzia izan dezakete beste esparru batzuetan. Era berean, beren prestakuntzarekin lotutako jardun profesionalak eginda egon daitezke, betiere, beren prestakuntza akademikoaren esparruan izan bada.

### 18. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA INVESTIGA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Donostia Sustapenak 50.000 euro bideratuko ditu Investiga laguntzetara. Zenbateko hori aldatu egin daiteke Donostia Sustapenak horrela erabakiz gero.

Gehienez, pertsona eskatzaile bakoitzeko bi laguntza eman ahalko dira.

Hau izango da **laguntzaren zenbatekoa**:

- **6.500 euro % 100eko lanaldi batekin 6 hilabete edo gehiagoko** iraupena duten kontratuak diruz laguntzeko.
- **4.800 euro gutxienez % 75eko lanaldi batekin 6 hilabete edo gehiagoko** iraupena duten kontratuak diruz laguntzeko.

Diruz lagun daitezkeen gastuak adierazitako betekizunak betetzen dituzten pertsonen kontratazioarekin zuzenean lotutakoak izango dira, laneko kontratua hasten den egunetik zenbatzen hasita lehendabiziko 6 hilabeteetako (epealdia hautatu egin daiteke) **soldatari**



dagozkionak (dietaren kontzeptua ez da sartzen). Gizarte Segurantzari dagozkion gastuak ez dira diruz laguntzekoak izango.

## 19. ARTIKULUA. INVESTIGA LAGUNTZAKO KONTRATAZIOEN BETEKIZUNAK

Kontratatutako pertsonen gutxieneko betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) **Kontratazioa egiten den unean 35 urte baino gutxiago** izatea
- a) **Titulazio** hauetakoren bat izatea: **Unibertsitateko Goi Gradua, Diplomatura edo Lizentziatura edo Goi Mailako Lanbide Heziketa**. Titulazioa atzerrian eskuratu baldin bada, eskaera egiteko epea amaitzen den unean tituluen homologazioari buruzko irailaren 30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren arabera homologatuta egon beharko da. Prestakuntza kualifikatu modura bestelako prestakuntzak onartu ahalko dira, betiere, sektorearekin edo jarduerarekin lotutako prestakuntza espezifikoak baldin badira. Kasu horietan erakunde kontratatzailea izango da, Donostia Sustapenaren adostasunarekin, titulazio hori baliozkotuko duena, garatzeko jardueretarako eskatzen dena bezala.
- b) Beren prestakuntza akademikoarekin lotutako laneko lehendabiziko kontratazioa izatea, edo bestela, arlo horretan ordura arte metatutako laneko esperientzia 12 hilabete baino gutxiagokoa izatea.
- c) **Donostian erroldatuta** egotea, beranduenez laneko harremana hasi aurreko egunean, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan erakunde kontratatzailearekin lotura duen edozein pertsona fisiko bizi den aparteko helbide batean edo artikuluko horretan ezarritako baldintzetan harekin lotura duen edozein erakunderekin.
- d) **Langabezian egotea eta Lanbide EEZ (Euskal Enplegu Zerbitzua) zerbitzuan enplegu eskatzaile modura izen emanda** egotea. Izen-emate data laneko harremana hasteko egunaren aurretikoa izango da. Langabetutako pertsonak ezin dira langile modura alta egoeran egon Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean, ezta Langile Autonomoen Araubide berezian ere, laneko harremana hasi aurreko egunetik gutxienez.
- e) Kontratatutako pertsona ez izatea pertsona onuradunaren ezkontidea, izatezko bikotea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera), arbasoa, ondorengoa edo bigarren graduako albokoa, izan jatorria ahaidetasunean, odolkidetasunean, kидetasunean, izatezko bikotea eratu ondorengo harremanean edo adopzioan. Halaber, ez dira kontratatzekoak izango pertsona onuradun horrekin Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko





urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluko 3. atalean adierazten den lotura duen pertsonatzat hartzen diren pertsonak ere.

Laneko kontratazioek gutxieneko betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Laneko kontratua **2020ko urtarrilaren 1 eta 2021eko otsailaren 26** bitartean (laneko kontratuaren hasiera-data) hasi beharko da, baldin eta, arrazoitutako arrazoiak direla medio, Donostia Sustapenak beste hasiera-data bat baimentzen ez badu berariaz.
- b) Kontratuak gutxienez 6 hilabeteko iraupena izango du, eta gutxienez % 75eko lanaldian. Kontratazioa kontratatzen den epealdian zehar eta lanaldi motan zehar mantendu beharko da.

Laneko harremana lehendabiziko bi hilabeteetan amaitzen baldin bada, pertsona onuradunek beste pertsona bat kontratatu beharko dute hilabete 1eko epean (baldin eta, arrazoitutako arrazoiak direla medio, Sustapenak beste hasiera-data bat baimentzen ez badu berariaz), eta horien kontratazioa mantendu beharko dute sei hilabeteak osatu arte. Laguntza bakoitzeko ordezkapen bakarra onartuko da.

Laneko harremana diruz laguntzen den epealdiaren aurretik amaitzen baldin bada, laguntza ezetsi egingo da, baldin eta laneko harreman hori ez bada arrazoi objektiboengatik edo enplegatzaileaz aparteko arrazoiengatik amaitu. Kasu horretan, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, laneko kontratuaren egiazko iraupenaren proportzioan.

Ezohiko egoera sozial eta ekonomiko batetik eratorrita, esate baterako, COVID-19 gaixotasunak berriki sortutako egoera batetik edo bestelako inguruabar batek eragindako beste egoera batetik eratorrita, kontratuak eten edota lanaldia eten edo murrizteko ABBE espedienteak gertatuz gero, Donostia Sustapenak une horretan laguntza zein baldintzatan mantentzen den erabakiko du, aipatu egoeraren arabera. Edozein kasutan, laguntza sekula ez da izango erakunde onuradunak egindako gastua baino handiagoa.

- c) Ebazpenaren egunez egin ez diren kontratazioak laguntzaren ebazpena eman eta beranduenez 2 hilabetera egin beharko dira, baldin eta, justifikatutako arrazoiak direla medio, Donostia Sustapenak beste hasiera-data bat onartzen ez badu berariaz.
- d) Kontratututako pertsonak hasiera batean “Investiga laguntzak” programaren erakunde onuradunaren barnean lanpostura egokituta hartzea bermatuko da. Harrera-plan honek garatuko dituzten jardueren iraunkortasunari buruzko prestakuntzazko pilula bat gaineratu beharko du.



Hurrengo kontratazioak ez dira diruz laguntzeko modukotzat jotzen:

- Lanaldia aldatutako kontratuak, baldin eta aldaketek hasieran kontratatutako lanaldia luzatzea ekarri ez badute.
- Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuak.

## 20. ARTIKULUA. INVESTIGA LAGUNTZAREN DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

7. artikuluan deskribatutakoaz gain, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

### **Dokumentazio teknikoa:**

Kontratatutako pertsonak egiteko lanketak eta lanerako sortutako abagunea jasotzen dituen **deskripzio-memoria**. (“Memoria Gidoia” eranskina)

### Enpresako jardunari eta egiteko lanketei buruzko dokumentazioa:

- Pertsona eskatzailearen identifikaziorako datuak eta datu orokorrak.
- Enpresako jardunaren deskribapen laburra (edo kontratatutako pertsona gaineratuko den proiektuarena): aurrekariak eta lortzeko helburuak
- Kontratatutako pertsonak egingo dituen lanketen deskribapena: landuko dituen jardueren xehetasuna.
- Lantaldearen deskribapena.

### Lanerako sortutako abaguneari buruzko dokumentazioa:

- Eskatutako profilarren deskribapena
- Abagunearen deskribapena: iraupena, harrera, jarraipena, barne garapena, kontratatutako pertsonaren kompetentziak garatzeko aukera, lanpostuaren eta kontratatutako pertsonaren proiektzioa eta iraunkortasuna, etab.
- Laguntzaren bidez kontratatutako pertsona berriaren tutore den pertsonaren erreferentzia eta haren funtzioak
- Estaltzeko eskaintzaren kudeaketarekin eta hautagaien bilaketarekin lotutako egutegia, zera adierazita:

Eskaintzak argitaratzeko gutxi gorabeherako datak

Hautaketa-prozesua ixteko aurreikusitako data

Egingo den edo diren kontratazioen datuak.

Erakunde onuradunean kontratatutako pertsonarentzat aurreikusitako Harrera Plana.

Bertan enpresaren funtzionamenduaz gain, haren jarduna eta zein proiektuko parte izango den eta garapen iraunkorren (ekologiko, ekonomiko eta soziala) kontzeptuari eta garrantziari buruz sensibilizatzeko atal bat barneratu beharko dira



Memoria modu simple eta argian idatzi beharko da, ulerkortasuna erraztuz eta erakundearen jardunaren eta burutzeko lanketen ulermena nahas dezaketen teknizismoetatik aldenduz. Gehienez 4 orriko luzera gomendatzen da. Memoriaren kopia digital bat helarazi beharko da (edo posta elektronikoz igorri behar da [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbidera)

## 21. ARTIKULUA. INVESTIGA LAGUNTZAREN BALIOESPENA

Eskaerak sarrera-erregistroko hurrenkeraren arabera ebaluatu eta ebatziko dira laguntza horretara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte, 2. artikuluekin bat etorritz.

Eskaera guztiak 20. artikuluari jarraiki aurkeztutako dokumentazio teknikoarekin bat etorritz balioetsiko dira. Eskaera bat onar dadin, ezagutzen oinarritutako jarduera bat burutzen duen erakunde bat izatea beharrezkoa izango da, 19. artikuluan ezarritakoa betetzeaz gain.

Donostia Sustapena pertsona eskatzaileekin jarrai ahalko da harremanetan, helarazitako dokumentazioa ulergarria dela erkatze aldera.

## 22. ARTIKULUA. INVESTIGA LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Laguntzak bi ordainketetan ordainduko dira.

**Lehendabizikoa (% 70ekoa emandako zenbatekoaren gainean)** jarraian eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren egingo da.

- Kontratututako pertsonaren datuak (“Kontrataziorako Datuak” eranskina)
- Laneko kontratuaren eta horri dagokion kontratuaren jakinarazpenaren kopia, iraupena, lanaldia, lanlekua eta burutuko duen lanpostua adierazita
- Kontratututako pertsonaren NAN / AIZ agiriaren kopia.
- Kontratazioa hasi ondotik Lanbidek igorritako “izen-emate epealdien txostena” izeneko dokumentua.
- Pertsona langilearen Lan Bizitza osoa, laguntzaren xede den kontratua hasi ostean Gizarte Segurantzak igorria.
- Kontratututako pertsona Donostiako Udalean errolatuta dagoela adierazteko ziurtagiria edo hura eskatzeko Donostia Sustapenaren baimena. (“Kontrataziorako Datuak” eranskinean barneratua)
- Kontratututako pertsonaren Curriculum Vitaea
- Kontratututako pertsonaren titulazio akademikoaren kopia.



Laguntza ebatzi aurretik egindako kontratazioen kasuan, gehienez hilabeteko epea izango da aipatutako dokumentazioa aurkezteko ebazpen hori ematen denetik aurrera.

Laguntza ebatzi ondoren egindako kontratazioen kasuan, gehienez hilabeteko epea izango da aipatutako dokumentazioa aurkezteko kontratazio-egunetik aurrera.

**Bigarren ordainketa (gainerako % 30a)** kontratazioaren azken justifikazioaren ostean egingo da.

Lehendabiziko ordainketaren jakinarazpenean azken justifikazioa aurkezteko epea adieraziko da:

- Kontratuan diruz lagun daitekeen epealdia igarota, kontratua hasi eta 6 hilabetera (ordezkapena egonez gero 2 kontratuen artean igarotako epea zenbatu gabe), gehienez bi hilabeteko epea izango da.
- Diruz lagun daitekeen epealdia amaituta egonez gero jakinarazpen hori egiten denean beste 2 hilabete izango dira ordutik.

Hau izango da pertsona onuradunak aurkezteko dokumentazioa:

- “Investiga\_Justifikazioa” eranskina, laneko kontratazio hau xede eta epe berdinerako Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batek, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeek finantzatuta ez dagoela adierazteko erantzukizunpeko adierazpena.
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, bere betebeharrak beteta dituela egiaztatzekoa.
- Kontratututako pertsonaren “afiliatu baten laneko bizitzaren txostena” izeneko dokumentua, laguntza eskatzen den epealdi eta lanaldian enpresan izan dela erakustekoa.

Bi kasuetan, dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

Donostia Sustapenak, ziurtagiri telematikoen bidez, zerga-betebeharra betetzeari buruzko (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Diru-bilketa) egiaztatiriak jasoko ditu zuzenean.

Pertsona eskatzailea Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzearen aurka ager daiteke berariaz. Kasu horretan dagozkion ziurtagiriak helarazi beharko dira.

Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo zergapetzen dutenek dagozkien Ogasunen



ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte beti.

Diru-laguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeke dituzten erakundeek hori beteko dutela egiaztatu beharko dute.

Pertsona eskatzailea Sustapenak ziurtagiri tematikoak eskatzearen aurka agertu bada berariaz edo Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo zergapetzen badu, era berean, honakoak helarazi beharko ditu:

- Laguntza eskatu duen enpresaren zerga-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzekoa.



## 2. KAPITULUA. TALENTO INNOVADOR

### 23. ARTIKULUA. TALENTO INNOVADOR LAGUNTZAREN XEDEA

**Goi mailako prestakuntza akademikoa duten 35 urtetik beherako (kontratazioaren egunean) gazteak, langabezian daudenak, enpresa proiektu berritzaileak garatzen ari diren tokiko erakundeetan** nahiz ezagutzen oinarritutako jarduera berritzailea garatzen duten erakundeetan **kontratatzea** akuilatzea.

Laguntza honen xedea da, kontratatutako pertsonak erakunde horietarako gakoa den jarduera berritzaile horretan ezagutza eman ahal izateko erakunde eta proiektuetara gaineratzea.

Garatzeko proiektu eta jarduerak profil kualifikatuak gaineratzen dituzten enpresak lehiakortasunari dagokionez hobetzerara bideratuta egongo dira, esparru hauek lehenetsiz:

- **Merkaturatzea:** enpresaren jarduera komertziala garatu eta sendotzera bideratutako proiektuak, halako jardueren bidez: salmentarako katalogoen garapena, bezero potentzialen identifikazioa, egungo bezeroak fidelizatzea, merkatuaren prospekzioa, merkatu berrietara jotzeko sustapen eraginkorrak zehaztea, erabilgarri dauden eskaintzak hobeto komunikatzeko proiektuak, etab.
- **Nazioartekotzea:** enpresaren jarduera komertziala atzerriko merkatuetan garatu eta sendotzera bideratutako proiektuak, halako jardueren bidez: enpresetarako merkatu estrategikoak aztertzea, nazioarteko merkatu berrietara irekitzeko esku-hartze planak diseinatzea, nazioarteko bezeroen prospekzioa, produktu edota zerbitzuak eskarira egokitzea, produktu edota zerbitzuak merkatu berriaren ezaugarrien arabera garatzea, etab.
- **Finantzazioa:** enpresaren egitura ekonomiko – finantzarioaren hazkuntza edota egonkortasunera bideratutako proiektuak, halako jardueren bidez: enpresen finantza sail/eremua indartzea, finantzazio-iturriak identifikatzea (tradizionalak eta alternatiboak), finantziorako formula eta mekanismo berriak enpresako proiektutarako egokiak diren aztertzea, finantzazio txandetara jotzeko proiektu estrategikoak prestatzea, etab.
- **Berrikuntza:** enpresan jarduera ildo berriak garatzera bideratutako proiektuak, negozio, produktu edo zerbitzu berriak sorraraztekoak, jarduera hauen bidez: Egungo produktu edo zerbitzuen inguruko gogoeta edo birbideratzea egiteko prozesuak. Teknologia, ezagutza edo negozio-ereduen azterketarako prozesuak transferitzeko proiektu estrategikoak teknologiak eta ezagutza merkatura egokitzeko. Gizarte berrikuntzako osagai garrantzitsu bat ahalbidetzen duten edo halakorik txertatuta duten proiektuei arreta berezia eskainiko zaie.



## 24. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA TALENTO INNOVADOR LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Donostia Sustapenak 250.000 euro bideratuko ditu Talento Innovador programara. Zenbateko hori aldatu egin daiteke Donostia Sustapenak horrela erabakiz gero.

Proiektu bakoitzeko kontratazio bakarrari eman ahalko zaio laguntza, gehienez enpresako 2 proiektu. Donostia Sustapenak erabakiko du bi eskaera proiektu berari ote dagozkion.

**Laguntzaren zenbatekoa**, laguntzaren eskaeran islatzen den kontratazioaren iraupen eta lanaldiaren arabera ezarria, honakoa izango da:

**6 hilabete edo gehiagoko eta 12 hilabete baino gutxiagoko iraupena duten kontratuen kasuan:**

- **10.000 euro % 100eko lanaldia duten** kontratuak diruz laguntzeko.
- **7.500 euro gutxienez % 75eko lanaldia duten** kontratuak diruz laguntzeko.

**12 hilabete edo gehiagoko iraupena duten kontratuen kasuan:**

- **20.000 euro % 100eko lanaldia duten** kontratuak diruz laguntzeko.
- **15.000 euro gutxienez % 75eko lanaldia duten** kontratuak diruz laguntzeko.

Diruz lagun daitezkeen gastu motak oinarri hauetan adierazten diren betekizunak betetzen dituzten pertsonen kontratazioarekin zuzenean lotuta daudenak izango dira. Ez da dieten kontzeptua sartuko, eta gastu horiek lehen 6 hilabeterakoak izango dira 6 hilabete edo gehiagoko iraupena duten kontratuen kasuan, eta lehen 12 hilabeterakoak 12 hilabete edo gehiagoko iraupena duten kontratuen kasuan. Bi kasu horietan, epeak laneko kontratuaren hasiera-datatik hasiko dira zenbatzen (epealdi hautagarria), baldin eta epealdi hautagarria doitzea eskatzen duten ezinbesteko kasuak gertatzen ez badira.

## 25. ARTIKULUA. TALENTO INNOVADOR LAGUNTZAKO KONTRATAZIOEN BETEKIZUNAK

Kontratututako pertsonak gutxienerako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) **Kontratazioa egiten den unean 35 urte baino gutxiago** izatea
- b) **Titulazio** hauetakoren bat izatea: **Unibertsitateko Goi Gradua, Diplomatura edo Lizentziatura edo Goi Mailako Lanbide Heziketa**. Titulazioa atzerrian eskuratu baldin bada, eskaera egiteko epea amaitzen den unean tituluen homologazioari buruzko



irailaren 30eko 1954/1994 Errege Dekretuaren arabera homologatuta egon beharko da. Prestakuntza kualifikatu modura bestelako prestakuntzak onartu ahalko dira, betiere, sektorearekin edo jarduerarekin lotutako prestakuntza espezifikokoak baldin badira. Kasu horietan erakunde kontratatzailea izango da, Donostia Sustapenaren adostasunarekin, titulazio hori baliozkotuko duena, garatzeko proiekturako eskatzen dena bezala.

- c) **Donostian erroldatuta egotea**, beranduenez laneko harremana hasi aurreko egunean, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan erakunde kontratatzailearekin lotura duen edozein pertsona fisiko bizi den aparteko helbide batean edo artikuluko horretan ezarritako baldintzetan harekin lotura duen edozein erakunderekin.
- d) **Langabezian egotea eta Lanbide EEZ (Euskal Enplegu Zerbitzua) zerbitzuan enplegu eskatzaile modura izen emanda** egotea. Izen-emate data laneko harremana hasteko egunaren aurretikoa izango da. Langabetutako pertsonak ezin dira langile modura alta egoeran egon Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean, ezta Langile Autonomoen Araubide berezian ere, laneko harremana hasi aurreko egunetik gutxienez.
- e) Kontratatutako pertsona ez izatea pertsona onuradunaren ezkontidea, izatezko bikotea (maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera), arbasoa, ondorengoa edo bigarren graduako albokoa, izan jatorria ahaidetasunean, odolkidetasunean, kideatasunean, izatezko bikotea eratu ondorengo harremanean edo adopzioan. Halaber, ez dira kontratatzekeak izango pertsona onuradun horrekin Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluko 3. atalean adierazten den lotura duen pertsonatzat hartzen diren pertsonak ere.

**Laneko kontratazioek** gutxienerako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Laneko kontratuaren hasiera honakoa izango da:
  - a1) 6 hilabete edo gehiagoko eta 12 hilabete baino gutxiagoko kontraten kasuan: **2020ko urtarrilaren 1 eta 2021eko otsailaren 26 bitartean** (laneko kontratuaren hasiera-data), baldin eta, arrazoitutako arrazoiak direla medio, Donostia Sustapenak beste hasiera-data bat baimentzen ez badu berariaz.
  - a2) 12 hilabete edo gehiagoko kontraten kasuan: **2020ko urtarrilaren 1 eta 2020ko azaroaren 30 bitartean** (laneko kontratuaren hasiera-data), baldin eta, arrazoitutako arrazoiak direla medio, Donostia Sustapenak beste hasiera-data bat baimentzen ez badu berariaz.





- b) Jasotzeko soldata, eta kontratuan islatuta geratzen dena (zenbatekoa eurotan) gutxienez, **urtean 18.000 euroko** soldata gordina izatea % 100eko lanaldi baterako eta **urtean 13.500 eurokoa** gutxienez % 75eko lanaldi baterako.
- c) Kontratuan errespetatu egingo da laguntzaren eskaeraren xede diren iraupena eta lanaldia. Eta kontratazioa kontratatzen den epealdian zehar eta lanaldi motan zehar mantendu beharko da.

Laneko harremana lehendabiziko bi hilabeteetan amaitzen baldin bada, pertsona onuradunek beste pertsona bat kontratatu beharko dute hilabete 1eko epean (baldin eta, arrazoitutako arrazoiak direla medio, Sustapenak beste hasiera-data bat baimentzen ez badu berariaz), eta horien kontratazioa mantendu beharko dute orotara onartutako iraupena osatu arte. Laguntza bakoitzeko ordezkapen bakarra onartuko da. Kontratazioak 6 hilabete baino gutxiagoan amaituko balira, edo 12 hilabete baino gutxiagoan 12 hilabetetarako kontratuen kasuan, proiektua denbora horretan zehar beste bitarteko batzuekin mantenduko balitz egiaz mantendutako kontratazio aldiari zati proportzionala ordainduko zaio. Proiektua epe horren barnean uzten baldin bada laguntza osorik itzultzeko eskatuko da.

Ezohiko egoera sozial eta ekonomiko batetik eratorrita, esate baterako, COVID-19 gaixotasunak berriki sortutako egoera batetik edo bestelako inguruabar batek eragindako beste egoera batetik eratorrita, kontratuak eten edota lanaldia eten edo murrizteko ABBE espedienteak gertatuz gero, Donostia Sustapenak une horretan laguntza zein baldintzatan mantentzen den erabakiko du, aipatu egoeraren arabera. Edozein kasutan, laguntza sekula ez da izango erakunde onuradunak egindako gastua baino handiagoa.

- d) Ebazpenaren egunez egin ez diren kontratazioak laguntzaren ebazpena eman eta beranduenez 2 hilabetera egin beharko dira, baldin eta, justifikatutako arrazoiak direla medio, Donostia Sustapenak beste hasiera-data bat onartzen ez badu berariaz.
- e) Kontratututako pertsonak hasiera batean “Talento Innovador” programaren erakunde onuradunaren barnean proiektura egokituta hartzea bermatuko da. Harrera-plan honek proiektuaren iraunkortasunari buruzko prestakuntzazko pilula bat gaineratu beharko du.

Hurrengo kontratazioak ez dira diruz laguntzeko modukotzat jotzen:

- Laguntza eskatu ostean luzatutako kontratuak.
- Kontratuen baturak. Diruz laguntzeko laguntza bakoitzeko kontratu bakarra onartuko da.
- Lanaldia aldatutako kontratuak, baldin eta aldaketek hasieran kontratatutako lanaldia luzatzea ekarri ez badute.



- Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuak.

## 26. ARTIKULUA. TALENTO INNOVADOR LAGUNTZAREN DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

7. artikuluan deskribatutakoaz gain, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

“Talento Innovador Memoria Gidoia” eranskina: garatzeko proiektu berritzailea nahiz lanerako sortutako abagunea deskribatuko dituen memoria bat. Informazio tekniko eta ekonomikoa jaso beharko du, eta proiektuaren diseinu orokorra erakutsi behar du (faseen garapena, lanketa, arduradunak, kronograma, emaitza adierazleak). Gainera, proiektua zein egoeran dagoen adierazi beharko da argiro, sortutako enpleguari buruzko informazioarekin batera. Atal hauek jaso beharko ditu:

### Deskribapen tekniko eta ekonomikoa

1. Proiektuaren izenburua.
2. Pertsona eskatzailearen identifikaziorako datuak eta datu orokorrak
3. Proiektuaren deskribapen laburra eta helburuak
4. Proiektuaren aurrekariak eta justifikazioa
5. Nazioarteko proiektzioa
6. Proiektuko fase nagusien eta garapenaren deskribapen laburra
7. Laneko kronograma, jarraipena eta kontrolerako adierazleak.
8. Lantaldearen deskribapena (barnekoa + kanpokoak)
9. Proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa eta esperotako emaitzak
10. . Proiektuaren inpaktu potentziala
11. Proiektuak hiriko estrategia ildoekin eta Sustapenak bultzatutako sektore estrategikoekin duen lotura

### Lanerako sortutako abagunearen deskribapena:

1. Eskatutako profilarren deskribapena
2. Lanerako sortutako abagunearen deskribapena:
  - Iraupena, lanaldia, harrera, jarraipena, barne garapena
  - Gutxi gorabeherako urteko soldata gordina.
  - Kontratututako pertsonaren konpetentzia garatzeko aukera
  - Lanpostuaren eta kontratatutako pertsonaren proiektzioa eta iraunkortasuna
  - Bestelako osagarriak: soldatarekin lotuak, prestakuntza espezializatua, barne sustapena, ...
3. Kontratututako pertsonaren tutore lanak egingo dituenaren izena eta haren funtzioak.
4. Hautaketa prozesuaren egutegia, honakoak adieraziz:
  - Hautaketa prozesurako erreferentziazko pertsona
  - Eskaintzak argitaratzeko gutxi gorabeherako datak



- Jasotako curriculumak aztertzeo datak
  - Elkarrizketak egiteko datak
  - Hautaketa prozesua ixteko data
  - Egingo den edo diren kontratazioen datuak.
5. Kontratututako pertsonarentzat aurreikusitako Harrera Plana. Bertan enpresaren funtzionamenduaz gain, haren jarduna eta zein proiektuko parte izango den eta garapen iraunkorraren (ekologiko, ekonomiko eta soziala) kontzeptuari eta garrantziari buruz sentsibilizatzeko atal bat barneratu beharko dira

Memoria modu simple eta argian idatziko da ulerkortasuna errazteko eta proiektuaren ulermena nahas dezaketean teknizismoak erabiltzea ekidingo da. 9. artikuluan proposamenak balioesteko zehazten diren irizpideak balioestea ahalbidetzeko informazio zehatza jasoko da. Gehienez 8 orriko luzera gomendatzen da. Memoriaren kopia digital bat helaraziko da edo posta elektronikoz igorri behar da [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbidera.

Eranskinak osorik bete behar dira.

Onuradun den pertsonak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa hartzen du beregain.

## 27. ARTIKULUA. TALENTO INNOVADOR LAGUNTZAREN BALIOESPENA

Eskaerak sarrera-erregistroko hurrenkeraren arabera ebaluatu eta ebatziko dira laguntza horretara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte, 2. artikuluekin bat etorritik.

Tokiko proiektuak izan beharko dira, ezaugarri hauetakoaren bat dutenak:

- Balio bereizgarria izatea egungo merkatu edo gizartearekiko
- Teknologian, ezagutzan edota berrikuntzak erabilera intentsiboa izatea
- I+G proiektuak izatea
- Produktu edota zerbitzu berri eta erabilgarriak izatea
- Daudenak baino eraginkorragoak diren eta gure hiriaren garapen sozial eta ekonomikoan inpaktu handiagoa sortzen duten negozioarako prozesu edo ereduak izatea.
- Profil kualifikatuak barneratzen dituzten eta balio erantsi handiko profil profesional berriak garatzen dituzten proiektuak izatea.

Oinarriekin bat etorritik aurkeztutako proiektu guztiak gehienez 100 puntura ebaluatuko dira.

Aurkeztutako proiektu guztiak horrela ebaluatuko dira:



- 1. eta 2. atalen gaineko balioespena (proiektu berritzailea), gehienez 70 puntu, **ezinbestekoa izango delarik gutxienez 55 puntu lortzea laguntza onar dadin.**
- 3. atalaren gaineko balioespena, gehienez 30 puntu, **ezinbestekoa izango delarik gutxienez 15 puntu lortzea laguntza onar dadin.**

Proiektuak balioespenerako irizpide hauekin bat etorri ebaluatuko dira:

<b>1. Proiektuaren balioespen teknikoa</b>	<b>65</b>
1.1 Proiektuaren diseinua eta kalitatea:	10
1.2. Proiektuaren bideragarritasuna eta eraginkortasuna: helburuak, adierazleak, garapen tekniko, komertzial eta finantzarioaren deskribapena, eta giza kapitalarena	40
1.3. Proiektuaren garapen iraunkorra: iraunkortasun ekonomiko, sozial edota ingurumenekoarekin lotutako irizpideen arabera	5
1.4 Proiektuaren inpaktu potentziala: posizionamendu lehiakorra, nazioarteko proiektzioa, enpleguaren sorrera.	10
<b>2. Lotura hiriarekin</b>	<b>5</b>
Donostia Sustapenak zehaztutako ildo eta sektore estrategikoak	5
<b>3. Sortutako enplegurako proposamenaren balioespen teknikoa</b>	<b>30</b>
3.1. Enpleguaren proposamenaren kalitatea: iraupena, harrera, jarraipena, barne garapena	10
3.2. Kontratatutako pertsonaren kompetentzia garatzeko aukera	5
3.3. Lanpostuaren eta kontratatutako pertsonaren proiektzioa eta iraunkortasuna	10
3.4. Bestelako neurri osagarriak: soldatarekin lotuak, prestakuntza espezializatua, barne sustapena, ...	5
<b>PUNTAZIOA GUZTIRA</b>	<b>100</b>

Donostia Sustapenak aukera izango du 1. eta 2. ataletarako eskatzen den gutxieneko puntuazioa gainditzin ez duten baina 50 puntu edo gehiagoko puntuazioa lortzen duten pertsona eskatzaileekin harremanetan ipintzeko, proiektzioa behar bezala ulertu ote den erkatzeko.



Modu ezohikoan, 2020ko ekitaldian eraturako Ekin + enpresa programan onartuak izan diren pertsona eskatzaileak enpleguaren abagunearen balioespenera pasako dira zuzenean, 1. eta 2. ataletako balioespena onartutzat joz.

## 28. ARTIKULUA. TALENTO INNOVADOR LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Laguntzak bi ordainketetan ordainduko dira.

**Lehendabizikoa (% 70ekoa emandako zenbatekoaren gainean)** jarraian eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren egingo da.

- “Kontratuziorako datuak” eranskina.
- Laneko kontratuaren eta horri dagokion kontratuaren jakinarazpenaren kopia, betekizun hauek egiaztatzekoa: iraupena, lanaldia, lanlekua, beteko den lanpostua eta ordainduko den urteko soldata gordinaren zenbatekoa (eurotan).
- Kontratututako pertsonaren NAN / AIZ agiriaren kopia.
- Kontratazioa hasi ondotik Lanbideak igorritako “izen-emate epealdien txostena” izeneko dokumentua.
- Pertsona langilearen Lan Bizitza osoa, laguntzaren xede den kontratua hasi ostean Gizarte Segurantzak igorria.
- Kontratututako pertsona Donostiako Udalean erroldatuta dagoela adierazteko ziurtagiria edo hura eskatzeko Donostia Sustapenaren baimena. (“Kontratuziorako Datuak” eranskinean barneratua)
- Kontratututako pertsonaren Curriculum Vitae.
- Kontratututako pertsonaren titulazio akademikoaren kopia.

Laguntza ebatzi aurretik egindako kontratazioen kasuan, gehienez hilabeteko epea izango da aipatutako dokumentazioa aurkezteko ebazpen hori ematen denetik aurrera.

Laguntza ebatzi ondoren egindako kontratazioen kasuan, gehienez hilabeteko epea izango da aipatutako dokumentazioa aurkezteko kontratazio-egunetik aurrera.

**Bigarren ordainketa (gainerako % 30)** egindako kontratazioaren azken justifikazioaren ostean egingo da.

Lehendabiziko ordainketaren jakinarazpenean azken justifikazioa aurkezteko epea adieraziko da:

- Kontratuan diruz lagun daitekeen epealdia igarota (hots, 6 hilabete edo 12 hilabete kontratuaren iraupenaren arabera) kontratua hasten den egunetik (ordezkapena



egonez gero 2 kontratuen artean igarotako epea zenbatu gabe), gehienez bi hilabeteko epea izango da.

- Diruz lagun daitekeen epealdia amaituta egonez gero jakinarazpen hori egiten denean beste 2 hilabete izango dira ordutik.

Hau izango da pertsona onuradunak aurkezteko dokumentazioa:

- Eranskina: “Talento Innovador\_Justifikazioa”, laneko kontratazio hau xede eta epe berdinerako Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batek, nazionalak, Europar Batasunekoak, finantzatuta ez dagoela adierazteko erantzukizunpeko adierazpena jasotzen duena.
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, bere betebeharrak beteta dituela egiaztatzea.
- Azken memoria, programaren bidez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren garapena deskribatzeko (“Azken Memoria” eranskina)
- Kontratututako pertsonaren “afiliatu baten laneko bizitzaren txostena” izeneko dokumentua, laguntza eskatzen den epealdi eta lanaldian enpresan izan dela erakustekoa.

Bi kasuetan, dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete behar dira.

Donostia Sustapenak, ziurtagiri telematikoan bidez, zerga-betebeharra betetzeari buruzko (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Diru-bilketa) egiaztariak jasoko ditu zuzenean.

Pertsona eskatzailea Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzearen aurka ager daiteke berariaz. Kasu horretan dagozkion ziurtagiriak helarazi beharko dira.

Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo zergapetzen dutenek dagozkien Ogasunen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte beti.

Diru-laguntza eta ordainketa ezberdinak eskatzen dituzten unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasun edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeke dituzten erakundeek hori beteko dutela egiaztatu beharko dute.

Pertsona eskatzailea Sustapenak ziurtagiri tematikoak eskatzearen aurka agertu bada berariaz edo Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo zergapetzen badu, era berean, honakoak helarazi beharko ditu:



Europar Batasuna  
Europako Gizarte Funtzia  
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

Unión Europea  
Fondo Social Europeo  
El FSE invierte en tu futuro

- Laguntza eskatu duen enpresaren zerga-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzekoa.